


INFLAZIOA

Inflazioa %3,7raino igo zen uztailen

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %3,7raino igo zen uztailen, energiaren garestitzeak bultzatuta, batez ere erregaien eta elektrizitatearen garestitzeagaitik. Azpiko inflazioa hiru hamarren igo zen aurreko hilaren aldean, industri ondasunen eta zerbitzuen azelerazioan oinarrituta. Hondar-inflazioak gorakada handiagoa izan zuen, nahiz eta landu gabeko elikagaien presioa txikiagoa izan, energiaren prezio igoera dela eta.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,7	3,7
Azpiko inflazioa (%85,3)	6,2	3,2	3,1	2,6
- Elikagai landuak (%14,1)	12,5	4,6	2,6	0,4
- Industria ondasunak (%18,5)	4,7	1,2	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%52,7)	4,3	3,5	4	2,1
Hondar inflazioa (%14,7)	-6,4	2,6	7,2	1,1
- Landu gabeko janariak (%6,8)	7,3	4,0	4,4	0,3
- Energia (%7,9)	-17,0	1,0	9,7	0,8


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Taldeka, garraioak izan zuen berriro inflazio-tasarik handiena (%6,5), petrolio gordinaren nazioarteko kotizazioen hazkundearen testuinguruan erregaien garestitzeak bultzatuta. Etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen azelerazioa ere nabarmendu zen (%4,7), prezio energetikoei laguntzeko ezohiko neurriak pixkanaka kentzearekin batera.

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek (%3,4) hazkunde nabarmena izan zuten, baina apur bat moteldu ziren ekainarekin alderatuta. Informazioa eta komunikazioak berriz %2,2 garestitu ziren aurreko hilabeteetan izandako jaitsieraren ondoren. Aitzitik, jantziek eta oinetakoek (-%3,9), merkealdiak direla eta, inflazioan eragin moderatzailea izaten jarraitu zuten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,7	3,6	2,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,4	1,6	0,8
Edari alkoholdunak eta tabakoa	2,2	2,9	2,9
Jantziak eta oinetakoak	-3,9	-2,2	0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,7	5,7	3,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,2	1,4	0,4
Osasuna	2,1	1,9	3,4
Garraioa	6,5	6,2	6,3
Komunikazioak	2,2	2,1	1,8
Aisia eta kultura	2,3	2,1	1,5
Hezkuntza	2,1	2,5	3,7
Jatetxeak eta hotelak	5,0	4,9	3,9
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	3,2	3,3	2,5
Zaintza pertsonala, babes soziala eta hainbat ondasun eta zerb.	3,0	3,2	2,9

Iturria: INE eta Eurostat.